



Cruz Roja
Gurutze Gorria



**2024KO
MEMORIA**

2024KO MEMORIA



Cruz Roja
Gurutze Gorria



AURKIBIDEA

01 GURE ESENTZIA

1.1	Xedea eta ikuspegia	8
1.2	Lurralde-sarea	12
1.3	Zifra nagusiak	14

02 LORTU DUGUNA

2.1	Komunitatea indartuz, apustu partekatua	18
2.2	Oinarrizko Laguntza Materialaren FSE+ Programa	20
2.3	Larrialdiaren aurreko erantzuna: Bizkaiko Gurutze Gorriaren konpromisoa DANAn	22

03 PERTSONAK

3.1	Jakintza-arloak	26
	Sorospenak	28
	Gizarteratzea	29
	Enplegua	30
	Osasuna	31
	Hezkuntza	32
	Ingurumena	33
3.2	Jarduteko irizpideak	34
3.3	Pertsonen Gurutze Gorria	36
	Adinekoak eta Zaintzaileak	36
	Umeak	38
	Gazteak	40
	Oso egoera zaurgarrian daudenak	41
	Migratzaileak	43
	Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak	46
	Gizarte arloko zailtasunak dituzten emakumeak	47
	Langabeak edo lan-egoera prekarioan daudenak	47
	Presoak edo preso ohiak	47
	Desgaitasuna duten pertsonak	48
	Osasun-arazoak dituzten pertsonak	48
	Biztanleria orokorra eta beste kolektibo batzuk	49

3.4	Gizartea mugiaraziz	54
	M8 Emakumeen Nazioarteko Eguna	54
	M2 Eskola-jazarpenaren kontrako Munduko Eguna	55
	M17 LGTBIFobiaren kontrako Nazioarteko Eguna	55
	E5 Ingurumenaren munduko eguna	56
	A25 Emakumearen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna	56
	GIBaren eta HIESaren aurreko erantzunaren munduko kanpaina	57
	Nazioarteko lankidetzak	57
3.5	Gazteen Gurutze Gorria	58
	Gazteen Atala	58

04 HORRELAKOAK GARA, HORRELA EGITEN DUGU LAN

4.1	Giza taldea	62
	Boluntarioak	62
	Langileak	66
	Bazkideak	68
4.2	Berdintasuna	70
4.3	Jasangarritasun instituzionala eta finantzarioa	71
	Jasangarritasun finantzarioa	71
	Baliabide materialak	73
	Komunikazioa	74
4.4	Enpresak	76

PRESIDENTE- AREN GUTUNA

Josu Perón Goitia
Bizkaiko Gurutze
Gorriaren presidentea



Bizkaiko Gurutze Gorriko lagun maiteak,
Ohorea da zuengana jotzea 2024. urteari dagokion Jarduera Memoria honen bitartez. Gure komunitatearekiko konpromisoaz, partaidetzaz eta hurbiltasunez betetako urtearen balantzea egiteko aukera ematen digu.
Aurten inoiz baino gehiago nabarmendu nahi izan dugu Bizkaiko Gurutze Gorriak eragile sozial eta komunitario gisa betetzen duen zeregina. Gure lana arreta humanitariotik harago doa: elkartzeko, parte hartzeko eta gizartea eraldatzeko gunea gara. Hala erakusten dute urte honetan artatutako 22.335 pertsonak, egindako 138.311 esku-hartzeek.

2024an, gure ekintza indartu dugu parte hartzea eta komunitateko bizitza bultzatzen duten ekimenetan. 725 adinekok hartu dute parte nahi gabeko bakardadearen kontrako ekintzetan, tailerren, belaunaldien arteko topaketen, laguntza taldeen eta kultur jardueren bidez. Gainera, adineko pertsonen laguntzeko eta haiekin egoteko ahots-gailuak erabiltzen dituen, eta informaziorako eta kontaktu sozialerako sarbidea ere baden Voces en Red proiektu berritzailea jarri dugu abian.

Gure ingurumenarekiko konpromisoak hazten jarraitu du, espazio naturalak garbitzeko eta berreskuratzeko 5 ekintzarekin eta basoberritzea eta ingurumen hezkuntza uztartuz 132 pertsona bildu zituen El Mazucoko (Zalla) basoberritzearekin.

Elkarbizitzaren sustapena ere etengabekoa izan da aurten: parte-hartzaileen loturak sendotzen eta bizitza soziala aberasten lagundu duten 89 hizkuntza-bikote prestatu dira eta 9 irteera kultural komunitario egin dira.

Eta Bizkaiko Gurutze Gorriak ezaugarri bat badu, gure ingurune hurbiletik harago elkartasunez erantzuteko duen gaitasuna da. 2024 honetan, Bizkaiko boluntarioak DANAK Valentzian eragindako larrialdian laguntzera joan ziren, elkartasunak ez dituela distantziak ulertzen erakutsiz. Mobilizazio hori haien ekarpenekin bat egin nahi izan zuten Bizkaiko bazkideen eta enpresen babesarekin indartu zen.

Zifra eta ekintza bakoitzaren atzean, Bizkaiko Gurutze Gorria erakunde humanitario bat baino askoz gehiago izatea ahalbidetzen duen komunitate aktiboa eta solidarioa dago. Parte-hartze komunitarioak gure lana eusten du eta, beste behin ere, pertsonak mobilizatzen direnean, aldaketa posible dela erakusten du.

Ekintza eta lorpen horietako bakoitza gure boluntarioen, lan-kontratuko langileen, bazkideen eta erakunde laguntzaileen inplikazioari esker lortu da. Horien entrega eta konpromisoa dira gure xedea bultzatzen duen motorra, eta gizarte bidezkoagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikitzen jarraitzeko arrazoia.

Nire eskerrik beroena, modu batera edo bestera ibilbide honetan parte hartu duzuen guztioi. Memoria honen orrialdeetan zehar nabigatzera gonbidatzen zaituztet, zifrak eta jarduerak ez ezik, elkarrekin mobilizatu, zaindu eta aurrera egiten duen komunitatearen balio izugarria ere islatzen baitute.

Eskerrik asko gure ondoan ibiltzen jarraitzeagatik.

Sinadura

01

GURE ESENTZIA

- 1.1** Xedea eta ikuspegia 8
- 1.2** Lurralde-sarea 12
- 1.3** Zifra nagusiak 14

Xedea eta ikuspegia



01 Gizatasuna

Printzipioetako lehena. Edozein giza sufrimendu motaren aurrean jarduteko gure argudio nagusia. Helburua Gizatasunaren printzipioa da, eta horrek ematen dio esanahia Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Mugimenduari.

Gudu-zelaietan zauritutako guztiei diskriminaziorik gabe laguntza emateko kezka sortu zuen Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua, nazio barruan eta nazioartean, egoera guztietan gizonen eta emakumeen sufrimendua prebenitzen eta arintzen ahalegintzen da. Bizitza eta osasuna babesteko joera du, baita gizakia errespetarazteko ere. Elkar ulertzea, adiskidetasuna, lankidetzeta eta herri guztien arteko bake iraunkorra bultzatzen ditu.



02 Inpartzialtasuna

Gure iritzia argi eta garbi adierazten du. Pertsona guztiei laguntza ematea esan nahi du, inolako bereizketarik egin gabe. Mugiarazten gaituen baldintzatzaile bakarra giza sufrimendua da. Inpartzialtasunak ziurtatzen du Gizatasunaren funtsezko printzipioa bete ahal izatea.

Ez du inolako bereizketarik egiten nazionalitateari, arrazari, erlijioari, gizarte-egoerari eta sinesmen politikoari dagokienez. Gizabanakoei laguntzen die, sufrimenduekiko proportzioan, haien beharrak bideratuz eta premiazkoenei lehentasuna emanez.



03 Independentzia

Gure lana kanpoko esku sartzerik gabe egin ahal izateko behar dugun autonomia izateko aplikatzen dugun estrategia da. Independentzia politikoa, ekonomikoa eta konfesionala, inolako ideologiaren interesen mende ez jartzeko. Aske izan behar dugu laguntza behar dutenengan hurbiltzeko.

Mugimendua independentea da. Botere publikoei lagunduz euren jarduera humanitarioetan, eta kasuan kasuko herrialdeak arautzen dituzten legeen mende, Sozietate Nazionalek, baina, autonomia gorde behar dute, betiere mugimenduaren printzipioen arabera jardun ahal izateko.



04 Neutraltasuna

Gure posizioa zehazten du edonon jardun ahal izateko. Neutralak gara behar gaituzten pertsonengana iritsi ahal izateko. Dauden lekuan daudela. Ez dugu epaitzen eta ez dugu esku hartzen, baina horrek ez du esan nahi jarrera bat edo beste hartzen ez dugunik.

Pertsona guztien konfiantzari eusteko, Mugimenduak ez du parte hartzen liskarretan eta, beti ere, politika, arraza, erlijio eta ideologia eztabaidetan.



05 Unitatea

Koherentzia adierazten du. Erakundeak norabide berean lan egiten duen printzipioa da. 191 herrialdetan dago, 97 milioi boluntario, bazkide eta laguntzailez osatutako sarearekin, eta mugimendu humanitarioak erakunde bakar gisa gauzatzen du bere lana.

Herrialde bakoitzean Gurutze Gorriaren edo Ilargierdi Gorriaren Elkarte bakarra egon daiteke, guztientzako irisgarria, eta bere ekintza humanitarioa lurralde osora zabaltzeko behar du.



06 Boluntarioritza

Borondatezko izaera da gure lana urrutirago eramateko, gure ekintzen autonomia ziurtatzeko eta komunitatea partaide bihurtzeko erabiltzen dugun metodoa. Boluntarioritza da Gurutze Gorriak duen babeserako ezkuturik handiena.

Borondatezko eta interesik gabeko sorospen-mugimendua da.



07 Unibertsaltasuna

Gurutze Gorriaren idealak unibertsalak izateko sortu ziren, eta Nazioarteko Mugimenduak printzipio horren inguruan dihardu. Unibertsaltasunak mugimenduaren kohesioa finkatzen du, eta bidegabekerien eta sufrimenduen aurrean antzeko erreakzioa izaten laguntzen du.

Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua unibertsala da. Mugimendu horren barruan, Sozietate guztiek eskubide berberak dituzte, eta elkarri laguntzeko betebeharra dute.

Ikuspegia

Espainiako Gurutze Gorriak, erakunde humanitarioa, boluntarioetan oinarritua eta gizartean oso errotua den aldetik, erantzun integralak emango dizkie zaurgarritasun egoeran dauden pertsonari, giza garapenaren eta garapen komunitarioaren ikuspegitik, euren testuinguru sozialean gaitasun indibidualak indartuz.



Xedea

Estatuan eta nazioartean zaurgarritasun egoeran dauden pertsonengandik gero eta gertuago egotea, funtsean boluntarioek egindako ekintza integratuen bidez, eta parte-hartze sozial eta lurralde presentzia handiarekin.

Goiburua

Hobeak izatea. Pertsona bakoitzak bere buruarekin eta besteekin duen konpromisoa, gure Oinarrizko Printzipioetan oinarritua. Gurutze Gorriaren gonbidapena, erreferente humanitario gisa eta munduko boluntarioen mugimendu nagusi gisa.

1.2

Lurralde-sarea



Bizkaiko Gurutze Gorriak Bizkaiko lurralde osoari erantzuten dio, tokiko/eskualdeko 13 batzarrek osatutako sarearen bidez.

- ✓ Bizkaiko Gurutze Gorriaren Probintziako Bulegoa
- ✓ Nerbioi Haraneko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Eskuinaldeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Lea Artibaiko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Bermeoko Tokiko Batzarra
- ✓ Mungialdeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Ezkerraldeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Durangaldeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Arratiako Eskualdeko Batzarra
- ✓ Busturialdeko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Enkarterriko Eskualdeko Batzarra
- ✓ Bilboko Tokiko Batzarra
- ✓ Uribe Kostako Eskualdeko Batzarra
- ✓ Barakaldoko Tokiko Batzarra

1.3

Zifra nagusiak



22.335

Pertsona Kopurua

11.890

Gizonak

9.882

Emakumeak

563

Ez dago

* Zifra horiek jakintza-arloetan parte hartu duten pertsonen kopurua adierazten dute. Horregatik, pertsona batek hainbat zerbitzutan parte hartu badu, behin bakarrik zenbatzen da, eta, beraz, baliteke guztizkoak bat ez etortzea arlo bakoitzean artatutako pertsonen baturarekin.



138.311

Esku-hartze Kopurua

JAKINTZA-ARLOA	EZ DAGO	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Hezkuntza		4.806	4.982	9.788
Enplegua	1	381	714	1.096
Gizarteratzea	1	4.227	6.181	10.409
Ingurumena		532	1.206	1.738
Osasuna	1	1.298	1.586	2.885
Sorospenak	562	3.535	253	4.350



4.090

parte hartzaile jarduera komunitarioetan

Bizkaiko Gurutze Gorriak Bizkaiko lurralde osoari ematen dio estaldura, toki/eskualde mailako 13 batzarren sarearen bidez.

02



LORTU DUGUNA

- 2.1** Komunitatea indartuz, apustu partekatua 18
- 2.2** Oinarrizko Laguntza Materialaren FSE+ Programa 20
- 2.3** Larrialdiaren aurreko erantzuna: Bizkaiko Gurutze Gorriaren konpromisoa DANAn 22

Komunitatea indartuz, apustu partekatua

Bizkaiko Gurutze Gorrian, 2024a funtsezko urtea izan da gure ikuspegi komunitarioa sendotzeko, gure esku-hartzearen erdigunean pertsonak eta haien inguruak jartzen dituen jarduteko modua. Ikuspegi horren bidez, komunitate kohesionatuagoak, osasungarriagoak, inklusiboagoak eta jasangarriagoak sortzeko

egiten dugu lan. Gure konpromisoaren ondorioz, parte-hartzea, ahalduntzea eta erantzukidetasuna bultzatzen duten ekintzak egin ditugu, elkarri laguntzeko eta elkartasuna adierazteko sareak sustatuz. Aurten, ekimen sorta bat zabaldu dugu gure gizartearen ongizaterako estrategikotzat jotzen ditugun hiru esparru handitan:

Ekintza komunitarioak nahi ez den bakardadearen aurrean

Biztanleriaren zahartzeak dakarren erronkaz eta adinekoen artean gero eta handiagoa den nahi ez den bakardade egoeraz jabetuta, 725 pertsonak parte hartu duten ekintza espezifiko jarri ditugu abian. Tailerren, belaunaldien arteko topaketen, laguntza taldeen eta kultura eta jolas jardueren

bidez, loturak sortzen, gizartea aktibatzen eta adinekoen bizi kalitatea hobetzen lagundu dugu. Ekimen horiek, isolamendu-egoerei aurrea hartzeaz gain, indartu egin dituzte kolektibo horren autoestimua, kide izatearen sentimendua eta parte-hartze aktiboa komunitateko bizitzan.

Osasun komunitarioko ekintzak

Pertsonen osasuna eta ongizatea sustatzea da gure lehentasunetako bat, osasuna ikuspegi integraletik ulertuta, arlo fisikoa, emozionala eta soziala barne. Urtean zehar, 302 pertsona inplikatu dituzten 10 ekintza gauzatu ditugu. Jarduera horiek hainbat gai jorratu dituzte, hala nola elikadura osasungarria, gaixotasunen

prebentzioa, osasun mentala, ariketa fisikoa eta kudeaketa emozionala. Beti metodologia parte hartzaile eta hurbiletik, herritarren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak hobetzeko lan egin dugu, autozainketarako eta eguneroko testuinguruetan bizi ohitura osasungarriak sustatzeko tresnak emanez.

Ingurumen arloko ekintzak

Ingurune naturala zaintzea eta ingurumenaren inguruan sentsibilizatzea funtsezko ardatzak dira gure ekintza komunitarioan. 2024an, bi esku-hartze mota egin ditugu arlo horretan:

- **Natura-ingurunea lehengoratzeko jarduerak:** 91 pertsonak parte hartu dute 5 jardueratan, natura-guneak garbitzeko, ekosistemak lehengoratzeko eta biodibertsitatea zaintzearen garrantziari buruzko kontzientziazioa lortzeko.
- **Basoberritzeko eta naturguneak sustatzeko ekintzak.** 132 pertsonak hartu dute parte sute larri batek kaltetutako Zallako El Mazuco mendia lehengoratzeko 3 jardueratan. Ekintza horiek, basoberritzen

eta ingurunea lehengoratzeko laguntzeaz gain, komunitateak bere lurraldearekin duen lotura indartzen ere lagundu dute, kide izatearen sentimendua, erantzukizun partekatua eta klima aldaketaren ondorioen aurreko erresilientzia sustatuz.

Urtean zehar egindako 40 ekintza komunitario baino gehiago horiek gure boluntarioek, parte hartzaileek, talde teknikoek eta erakunde laguntzaileek elkarrekin egindako ahaleginaren isla dira. Elkarrekin, pertsonak aldaketaren protagonistak eta soluzioen parte aktiboa diren komunitate indartsuago, inklusiboago eta erresilienteagoetarantz egin dugu aurrera.

Oinarrizko Laguntza Materialaren FSE+ Programa

Proiektu hau, euren kargura adingabeak dituzten pertsonen oinarrizko ondasunak eskuratu ahal izango dituztela bermatzeko jarri da abian, euren bizitzak baldintza duinetan gauzatu ahal ditzaten. Horretarako, proiektuak funtsezko 4 elementutan eragina duen ikuspegi integrala ezartzen du:

- Pertsonen oinarrizko premiak berehala betetzen dituztela bermatzea.
- Denboran estaldurari eustea ahalbidetuko dieten gaitasunen garapena bultzatzea.
- Pertsonen neurri horiek abian jarriz jardun dezaketela ziurtatzea.
- Behar den laguntza eskaintzea, modu iraunkorren, denboran zehar oinarrizko behar horiei erantzuteko gaitasunari eusteko.

2024an, adingabeak ardurapean dituzten pertsonen oinarrizko ondasunetarako sarbidea bermatzeko proiektu berri hau jarri da abian, euren bizitzak baldintza duinetan garatu ahal izan ditzaten laguntzeko. Proiektu honek erreleboa ematen dio lehengo FEADari (Egoera Txarrean zeuden Pertsonen Laguntzeko Funtsa), eta elikagai saski bat emateari utzi zaio, horren ordez diru-txartel bat emateko.

Horretarako, proiektuak funtsezko 4 elementuri eragiten dien ikuspegi integrala ezartzen du:

- Pertsonen euren oinarrizko premiak berehala betetzen dituztela bermatzea.
- Denboran estaldurari eustea ahalbidetuko dieten gaitasunen garapena bultzatzea.
- Pertsonen neurri horiek abian jarriz jardun dezaketela ziurtatzea.
- Behar den laguntza eskaintzea, denboran zehar oinarrizko behar horiei modu iraunkorren erantzuteko gaitasunari eusteko.

Oinarrizko ondasunak eskuratzeko eredu berri horrekin pertsonen autonomia bultzatzen da, benetan behar dituen higiene- eta elikadura-produktuak eros baititzake, eta aurrerapen nabarmena da pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren kontrako borrokan, ahaleginak berehala arintzean ez ezik, pertsonen gaitasunak indartzean ere zentratuta, euren ongizateari modu iraunkorren eutsi ahal izan diezaioten.



Larrialdiaren aurreko erantzuna: Bizkaiko Gurutze Gorriaren konpromisoa DANAn

2024an, Bizkaiko Gurutze Gorriak zeregin nabarmena izan zuen Valentziako Erkidegoan eragin handia izan zuen DANari emandako erantzunean. Hondamendiaren ondorengo lehen uneetatik, erakundeak pertsonak, baliabideak eta ezagutzak mobilizatu zituen euriteen, uholdeen eta kalte materialen ondorioak jasan zituzten komunitateei laguntzeko.

Bizkaiko Gurutze Gorriaren parte hartzea larrialdia hasi zenetik 2025eko otsailera arte luzatu zen. Larrialdi fasean, lehentasunak erreskatea, etxebizitzaren eta espazio publikoen garbiketa, berehalako arreta eta oinarrizko premien estaldura izan ziren, eta errehabilitazio fasean, lanak kaltetutako pertsonen laguntza emozionala ematea, tokiko azpiegiturak birgaitzea eta kaltetutako pertsonen artean laguntzak banatzea izan ziren.

Bizkaiko 43 boluntario joan ziren Valentziara, 14 lantalde espezializatuta. Ekipo horiek profil

desberdinak eta osagarriak izan zituzten eskatzen ziren arloetan: uretako larrialdiak, luraren errehabilitazioa, logistika, arreta psikosoziala, esku hartze soziala eta osasun laguntza. Bere esperientziari eta prestakuntzari esker, behar ugari bete ahal izan zituzten, bai berehalako erreskate- eta laguntza-jarduketetan, bai ondorengo berreskuratze- eta laguntza-lanetan. Gainera, Bizkaiko boluntario bat lurraldeen arteko kudeaketa ordenatua ziurtatuz estatu mailako erantzuna koordinatu zuen Gurutze Gorriaren Krisi Zelula Nazionalako taldeko kide izan zen. Bizkaian, dozenaka boluntariok egin zuten lan laguntza eta logistika lanetan. Ibilgailuak prestatzen, materialak antolatzen eta urrutiko kudeaketan egin zuten lana ezinbestekoa izan zen lekualdatutako taldeek une oro tokian bertan segurtasunez eta eraginkortasunez jarduteko behar zituzten baliabideak izan zituzten. Gurutze Gorriak Gueñesen duen zentro logistikoak funtsezko zeregina izan zuen operazio osoan. Puntu horretatik koordinatu zen materialen eta ekipoen prestaketa, biltegiatzea eta Valentziako

Erkidegora bidalketa. Mobilizatutako baliabideen artean hauek nabarmendu ziren: lur orotako ibilgailuak, zulatzeen kontrako kitak, botikinak, osasun materiala, palak, kuboak, mahaiak, aulkiak, oheak, mantak eta karpak, boluntarioentzako babes ekipoez gain. Material horri guztiari esker, esku-hartzea segurua eta eremuaren baldintza zailetara egokitua izango zela bermatu ahal izan zen.

DANAn egindako esku-hartzeak Bizkaiko Gurutze Gorriaren prestakuntza tekniko eta gaitasun logistikoa ez ezik, boluntarioen konpromisoa eta

elkartasuna ere agerian utzi zituen. Erantzuna, une kritiko batean gehien behar zutenei laguntzeko profil desberdinetako pertsonen euren denbora, ezagutza eta energia batu zituzten ahalegin kolektiboa izan zen.

Esperientzia horrek indartu egiten du Bizkaiko Gurutze Gorriak bere ingurune hurbilean eta estatu mailako larrialdietan jarduteko duen gaitasuna, eta erakusten du lankidetzaren, koordinazioaren eta talde lana direla ekintza humanitario baten oinarria.



03



PERTSONAK

3.1	Jakintza-arloak	26
3.2	Jarduteko irizpideak	34
3.3	Pertsonen Gurutze Gorria	36
3.4	Gizartea mugiaraziz	54
3.5	Gazteen Gurutze Gorria	58

3.1



Jakintza- arloak



Sorospenak

Pertsonen euren bizitzak arriskuan jartzen dituzten egoera larriak edo kronikoak gainditu ahal izateko lan egiten dugu. Hondamendi naturalen aurrean esposizio arriskua murrizteko, larrialdi egoeretako beharrak asetzeko eta osasun laguntza azkarrago eskuratzeko planak abian jartzen ditugu.

Hauek dira gure Jarduketa-arloak:

Prebentzio-zerbitzuak

Prebentzio-zerbitzuak, jende asko dagoelako edo ekitaldiak ezaugarri bereziak dituelako aurreikus daitezkeen arriskuak dituen ekitaldi edo jardunaldi bat estaltzeko Gurutze Gorriak egiten duen aurretiazko plangintzaren ondoriozko antolaketa eta arreta soziosanitarioko jarduketak dira.

Eragiketak EIREekin

Larrialdietan Esku-hartze Azkarreko Taldeak koordinatzen eta hedatzen laguntzea. Gurutze Gorriak lantalde espezializatuak ditu lurraldean erantzun azkarra eta iraunkorra emateko larrialdi-egoerek eragindako herritarren berehalako premien aurrean, komunitate horiek suspertzeko prozesua indartzen lagunduz. Gurutze Gorriaren helburuetako bat egoera kritikoan (suteak, uholdeak, elurteak, lurrikarak, biktima asko eragin dituzten istripuak, salgai arriskutsuak) eraginpean egon diren pertsonen laguntzea da. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemari integratuta erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzaren bidez. Koordinazio Zentroek erreferentzia gisa jardun dezakete talde horiek aktibatze, dagokion administrazioko organo eskudunak eskatuta, eta egiten dituzten eragiketen eta jarduketaren jarraipena egin dezakete.

Hondartzetako Istripuen Prebentzio, Sorospen eta Laguntza Zerbitzua

Bizkaiko Foru Aldundiak gure lurralde historikoko hogeita hiru hondartzatan ematen duen Istripuen Prebentzio, Sorospen eta Laguntza Zerbitzua da. Foru Aldundiaren etengabeko apustuari esker Gurutze Gorriak 2006ko udan Bizkaiko hondartzetako zerbitzua lehen aldiz bere gain hartu zuenetik, zerbitzuak nabarmen egin du aurrera, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki.

Itsas Salbamendua

Zerbitzu honen helburua Bizkaiko kostaldean zehar itsasoan edo barruko ur nabigagarrietan arriskuan dauden pertsonak salbatzen saiatzea da, bai eta itsasoko jendearen alde egin daitezkeen lan humanitario guztia egitea ere.



Gizarteratzea

Lanean jarraitu dugu desberdintasunak murrizteko eta gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboentzat etorkizunerako aukerak sustatzeko.

Aurkitu dugun testuinguru sozioekonomikoak desoreka sozial berriak sortzea ekarri duten aldaketak eragin ditu, ohikoak ez diren profilekin, hala nola guraso bakarreko familiak eta gazteak, gure arreta behar duten pertsonen kopurua handituz.

Hauek dira gure konpromisoak:

- Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen isolamendua eta bakardadea husten laguntzea.
- Indarkeria identifikatzeko, prebenitzeko eta ezabatzen laguntzeko lan egitea, bereziki umeen, adinekoen eta emakumeen kontrako.
- Zaurgarritasun egoeran edo/eta bazterketa arriskuan dauden pertsonen aktibazio soziala sustatzea.
- Gizarte inklusiboagoa sustatzea, pertsona zaurgarriak gizarteratzen laguntzeko.





Enplegua

Enpleguaren eremuan, pertsona guztien aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzen dugu, sexua, arraza- edo etnia-jatorria, adina edo sexu-orientazioa edozein dela ere. Horrela, lan merkatuan dauden arrakalak murrizten laguntzen dugu, desabantaila egoeran dauden pertsonen eta ordezkartza txikia duten taldeek euren lan ikuspegiak hobetu ahal izan ditzaten. Horretarako, balibideak eta gaitasunak ematen dizkiegu, eskura izan ditzaten. Gure enplegu-konpromisoak lantzen jarraitzen dugu:

- Lan-merkatuan parte hartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen aktibazioa, enplegarritasuna eta lan-espazioetako integrazioa indartzea, bereziki emakumeak, 45 urtetik gorakoak eta etorkinak.
- Pertsona zaurgarrienen arrakalak murriztea, eraldaketa digitalak dituzten enpleguetan parte hartzeko.
- Lan merkatuko aliantzak eta erantzukidetasuna sustatzea, aukera berdintasunaren aldeko inklusioa ahalbidetuz.
- Lan-aktibaziorako aukerak sortzea eta zaurgarritasun-egoeran dauden gazteak gaitzea lan-merkatuan parte har dezaten eta bertan sar daitezen.



Osasuna

Osasunaren arloan, biztanleria-taldeak kontzientziatzen, prestatzen eta informatzen jarraitzen dugu, eta, bereziki, zaurgarriak, prebalentzia handieneko eta jarduteko gai garen osasun-arazoaren inguruan gure osasuna hobetzeko.

2024an osasun mentala hobetzen laguntzeko beharra ikusi genuen, eta, horretarako, Gurutze Gorriak Entzuten Zaitu gure zerbitzua indartu dugu. Gainera, DANak Valentziako Erkidegoan eragindako hondamendi naturalaren ondorioz, proiektuaren arreta-taldea handitzen jarraitzen da, lasaitze emozionalerako egin diren dei gero eta kopuru handiagoari erantzuteko. Era berean, STIak ugaritu egin direla eta prebentzioa azpimarratu behar dela adierazi dugu, Osasun Zentroetako pantailetan gaixotasun horiei buruz agertzen diren mezuak indartuz. Horretarako, hainbat kanpaina egin ditugu, eta Bizkaiko 4.000 gazte baino gehiagorengana iritsi gara. 2024an, ekintza horiek hainbat kolektibo zaurgarritara zabaldu dira, higiene intimoaren eta transmisio bideen ezagutzaren garrantzia azpimarratuz. Oraindik ere lehentasuna da gure erakundearentzat adinekoekin lan egitea, belarriaren eta ikusmenaren zaintzan, larruazalaren zaintzan eta gripearen eta COVIDaren kontrako txertaketan tematuz, bai eta berotik edo hotzetik babesteko aholkuak emanez ere. Era berean, osasun komunitarioaren esparruan eta gaixotasun mota desberdinekin erlazionatutako munduko egunetan,



herritarrak oro har eta gaixotasun horien xedeta-taldeak sentsibilizatzeko kanpainak egin dira. Ildo horretan, sentsibilizazio-ekintzak egin dira tuberkulosiari, anemia faltziformeari, hipertentsioari edo bihotz-biriketako errehabilitazioari (BBB) buruz, besteak beste. Ingurumenaren zaintzak osasunean duen eragina ulertzen laguntzeko ONE HEALTH prestakuntza programa bat sortzera eraman gaitu, Ingurumenaren Ezagutza Arloarekin koordinatuta eta beste erakunde batzuekin aliantzak sortuz. Ildo horretan, lankidetzaren hitzarmena finkatu da Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiarekin, arazo horren inguruko ezagutzak zabaltzeko eta partekatzeko.



Hezkuntza

Gurutze Gorriaren Hezkuntza Jakintzaren Arloa balio argia duen estrategia da, bai kolektibo zaurgarriekiko edo, oro har, biztanleekiko esku-hartzea behar bezala gauzatzeko, bai erakundea antolatzeko eta haren barne-kudeaketa egiteko. Bizkaiko Gurutze Gorriak esperientzia eta profesionaltasun handia du irakaskuntza soziosanitarioaren arloan, eta lanbide-heziketako 7 ziklo (16 ikasle talde), enplegua lortzera bideratutako irakaskuntzak, profesionaltasun-ziurtagiria eta SEPE espezialitateak eta Gurutze Gorriaren berezko prestakuntzak ematen

ditu, gizarte- eta osasun-arloko gaitasunak eta trebakuntzak lortzeko. Gaur egun, hezkuntza-arloak 5.524 ikasle ingururi irakasten die, eta 320 prestakuntza-ekintza inguru ematen ditu. Horietatik 522 LHko prestakuntza-graduetakoak dira, eta gainerakoak profesionaltasun-ziurtagirietara, SEPE espezialitateetara eta herritar guztiei, kanpoko erakundeei eta boluntarioei eta lan-kontratuko langileei zuzendutako gizarte- eta osasun-arloko beste titulazio batzuetara bideratutako prestakuntzak egiten dituzten ikasleak dira.



Ingurumena

Gurutze Gorriak pertsonen bizitza eta segurtasuna, aberastasun naturalak eta ingurumena babesteko balioak sustatzera bideratzen du bere ingurumen-jarduera, gizarte-desberdintasuna eta muturreko pobrezia eragiten duen mehatxu oro saihestuz. 2024an, gure ingurumen jarduera lau ardatz nagusitan gauzatu dugu, 2023arekin alderatuta beste jarduketa bide bat txertatuz.

Ingurumen-hezkuntza

Hondakinen kudeaketako interpretazio-zentroetara egindako bisiten bidez, ingurumenarekiko sentsibilizazioari buruzko hitzaldien bidez edo etxeetako, laneko, kaleko... hondakinen kudeaketan gaikuntza-tailerren bidez...

Ingurunearen hobekuntza edo Esku hartzea ingurumenean

Bizkaiko hainbat inguruetan garbiketa lanak eginez eta hondakin horien kategorizazioa eginez, ondoren zaborraren ezabaketari dagokionez beharrak aztertze eta ebaluatze.

Konpentsazioa

CO₂ isurien konpentsazioa, bertako basoberritzearen eta energia-pobreziako egoeran dauden etxeetan etxetresna elektrikoak birgaitzearen eta ordezkatzerearen bidez.

Ekosistemen zainketa

Azterketa ekosistemikoaren eta ingurumen sistemen sorkuntzaren bidez, hainbat eremutan (hiriguneak, landaguneak, naturalak, birgaituak...) ekosistemak garatzeko eredia aztertu ahal izateko.



Jarduketa irizpideak



Hurbiltasuna

Errealitateak aztertzea pertsonengandik hurbilen dauden testuinguruetan, gure

lehentasunekin bat datozen erantzunak sortuz. Tokiko, eskualdeko eta uharteetako batzarrak dira gure elementu bereizlea eta gure indarra. Erakundeak lurralde-batzen errealitatera eta beharretara egokitu behar du, baliabideak (antolamendukoak eta finantzarioak) ingurune ekonomiko eta sozialaren arabera bermatuz.



Parte hartzea

Herritarren inplikazioa eta ekarpena hobetzea, herritartasun aktiboagoa eta konpromiso etengabekoa

eraikitzeko, beren ekimen propioak bultzatuz. Erakundeak parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko agertoki berriak bultzatuko ditu, gure ideia humanitarioak areagotzeko xedez.



Boluntarioak

Boluntarioak dira Erakundearen Printzipioen eta Balioen transmititzaile nagusiak, gizartea

aldatzeko eta eraldatzeko eragile gisa antolaketa-gaitasunak indartuz eta erabakiak hartzeko espazio partekatuak sustatuz, elkartasunaren adierazpide desberdinetara irekitako erakundearen esparruan. Bereziki, gazteek Gurutze Gorriaren jardueretan eta gobernuan parte hartzea sustatuko da.



Pertsonarekiko orientazioa

Pertsonak gure konpromiso humanitarioaren erdigunean jartzea, nor bere egoera konpontzen parte

hartzea erraztuz eta erantzunak beharren eta eskubideen arabera planifikatuz.



Lotura

Pertsonen behar, interes eta gaitasunekiko konpromisoa eta hurbiltasuna agerian uztea. Alerta

goiztiarrak detektatzea, baliabideak eta eragina aktibatzea eta mobilizatzea, pertsona ahulen mesedetan jardun dadin une oro, oinarritzko printzipio humanitarioak erabat errespetatuz.



Erantzunkidetasuna

Erantzukizunak, proiektuak, zerbitzuak eta baliabideak partekatzea lurralde-eremu guztietan

eta horien artean, sareko lana erraztuko duten ereduak bilatuz.



Berrikuntza

Gurutze Gorria erantzun berritzaileak bilatzen saiatzen da garapen jasangarria lortzeko, Garapen

Jasangarrirako Helburuak (GJH) bultzatuz. Helburu horiek pobreziaarekin amaitzea bilatzen dute, pertsonen ongizatea ingurumen-irizpideekin harmonian bilatuz.



Erantzun integrala

Ekintza integralak gauzatzea,

Erakundearen lana jasotzen duten pertsonen behar sozialei, fisikoei

eta gabezia emozionalei eta autoestimukoiei erantzuteko.



Komunitatearekiko orientazioa

Gizarteko beste eragile batzuekiko (ekonomikoak, politikoak,

sozialak) lankidetzeta eta harremana bilatzea, arazoaren kausetan eragiteko eta konponbideak proposatzeko, gure xedearekin, ikuspegiarekin eta printzipioekin bat etorrituz.



Gobernu ona

Integritate-, austeritate-, gardentasun- eta erantzukizun-jokabideetan oinarritutako erakunde-

eredua bermatzea, barne-kohesioa bermatuz eta jarduera-esparru gisa Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta 2030 Agenda hartuta.



Eraginkortasuna eta efizientzia

Prozesuak arintzea eta sinplifikatzea, erakundearen

barne-funtzionamendua optimizatuz, arinagoa, indartsuagoa eta jasangarriagoa izan dadin. Espero diren emaitzak eta inpaktuak lortzera bideratutako kudeaketa.



Genero-ikuspegia

Genero-ikuspegia Txertatzea zeharka antolamendu-kulturan, egituretan eta laneko prozeduretan,

emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta aldeak ikusaraziz eta aukera-berdintasunaren aldeko konpromisoa gizarte osoari helarazten dion errealitatea izan dadin jardunez.

Pertsonen Gurutze Gorria

Adinekoak eta Zaintzaileak

Bizkaiko Gurutze Gorriak gauzaturako proiektuetan 2.200 pertsonari eman zaie arreta. Nabarmenezkoa da Adinekoen Programa pixkanaka sartu dela Bizkaiko Toki Batzarretan,

eta Zahartze Osasungarriarekin erlazionaturako jardueren hazkundera eman dela. 2024an ekintza hauek egin dira:

URTEAN ZEHAR EGINDAKO JARDUERAK	ERABILTZAILEREN KOP.
Erabiltzaileari etxean laguntzea	192
Gestioetan laguntzea (kontsulta medikoak, tramitazioak...)	325
Estimulazio kognitiboko eta mugikorren erabilerako tailerrak	350
Atsedeen jarduerak	192
Tailer eta hitzaldi presentzialak	561
Jarraipen- eta informazio-deiak	999
Laguntza-produktuen maileguak	586

Hotz-bolada, bero-bolada, gripearen-covidaren txertoa

Bizimodu ez-osasungarria duten pertsonen erantzuten diegu, neguan zein udan muturreko tenperaturei aurre egiteko aholkuak ematean zentratuz. Era berean, gripearen eta Covidaren kontrako txertaketa kanpainei buruzko aholkuak ematen eta zalantzak argitzen ditugu. Esku-hartze hori 65 urtetik gorako pertsonen dago

zuzenduta, eta telefonoz egiten da. 2024an 844 dei egin dira guztira. % 77,13 emakumeek hartu dituzte, eta % 23,22 gizonek.

Jabetuz

Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuaren helburua Alzheimerraren eta beste demenzia batzuen diagnostikoa duten pertsonen bizikaltatea hobetzea da, hainbat zerbitzu

emanez: demenziaren ondorioz aldatzen diren funtzio mentaletan eustera bideratutako Estimulazio Kognitiboko tailerrak; familia eta zaintzaileekiko esku-hartze integraleko tailerrak; zahartzaroan arazo bihurtzeko arrisku-faktoreak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko behar diren ezagutza teknikoak eskuratzera bideratutako informazio-jarduerak; eta pertsona bere aldaketaren eragile gisa ahalduzera eta aktibatuzera bideratutako jarduerak, zahartze-eredu aktibo, parte-hartzaile eta osasungarria abian jartzeko. 2024an 150 pertsona artatu ditugu.

Zaintzaileei laguntzeko taldea

Zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko tailerrak dira. 2024an, **32 pertsonak hartu dute parte erabiltzaile gisa, eta horietatik 22 emakumeak izan dira eta 10 gizonak.**

Arlo digitaleko eskumenak

213 erabiltzailek hartu dute parte informazioaren eta komunikazioaren teknologiek erlazionaturako hainbat jardueratan: smartphonea erabiltzeko tailerrak, tablet bidezko jarraipenak eta ahots-laguntzaileak.

Zahartze aktiboa

Hainbat jardueraren bidez, osasun fisikoa eta mentala, independentzia eta bizi kalitatea mantentzen eta hobetzen laguntzen dugu. 2024an, animazio soziokulturaleko jarduerak erregularrak egin dira 302 pertsonarekin, osasun jarduerak etengabeak 142ekin eta animazio jarduerak puntualak 117 pertsonarekin.

Akonpainamendu puntualak eta erregularrak

Etkez etxeko laguntza osagarriari dagokionez, 325 akonpainamendu puntual egin dira kudeaketa administratiboetan zein medikoetan. Bisita presentzialak probintzia osoan egin zaizkie, astero, 192 pertsonari, eta 162 pertsonarekin aritu gara etxean bertan, eta 30 pertsonarekin erakundeetan.

Telelaguntza

315 erabiltzaileari ematen dizkiegu telelaguntza-zerbitzuak urtean zehar.

Adinik Gabeko Bizikletak

Billboko Udalak sustaturako programa horrek mugikortasun murriztua duten adinekoei aisialdiko jardueretan laguntza eta parte hartzeko aukera eskaintzen die, bizikleta egokituak erabiliz, kolektibo horrek jasaten dituen oztopo arkitektonikoak eta beste oztopo kultural eta sozial batzuk gainditzen saiatzeko. Aurten, guztira, 598 pertsonari eman zaie arreta. Horietatik 416 emakumeak izan dira eta 181 gizonak. Adinaren arabera parte-hartzaile dagokionez, 81 eta 95 urte bitarteko pertsonak izan dira gehienak.

Haurtzaroa

Hezkuntzako laguntza - eskola-arrakastaren sustapena

Derrigorrezko eskola-prozesuan zailtasunak dituzten 6 eta 16 urte bitarteko umeei eta pobrezia- eta bazterkeria-arriskuan dauden familiei eskolako laguntza, ondoan aritzea, mobilizazioa, informazioa, ondasunak eta laguntza ekonomikoa ematen dien proiektua da. Proiektuaren helburua umeen eskolako prozesuan eragina duten faktore pertsonaletan eta ingurunearen faktoreetan eragitea da, haien eskolako errendimendua hobetzen lagunduko dieten zerbitzu eta baliabideetarako sarbidea erraztuz eta arratsaldeetan eskolako lanak egiten lagunduz. 2024ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra, guztira 233 ume artatu dira.

Konektatu eta ikasi! – Gaitasun Digitalak (CODI)

Konektatu eta ikasi! aurrez aurreko 30 orduko prestakuntzaren bidez, oinarrizko gaitasun digitalen eskurapenean oinarrituz, 9 eta 17 urte bitarteko umeei eta nerabeei zuzenduta dagoen eta inklusio digitala bermatzea bilatzen duen programa da. Proiektu horren bidez, Gazteen Gurutze Gorriak tresnak eta informazioa eskaini nahi ditu gure haurtzaroan eta gaztaroan gero eta presentzia handiagoa duen alternatiba baliagarri bati buruz: mundu digitala. 2024ko uztailetik, udaleku digital formatuan prestakuntzak egin dira, 57 gazte trebatuz. Era berean, programa 2025eko ekainean amaituko duten 284 umerekin prestakuntza hasi da.

Umeen parte-hartzea

PINEO Proiektua, Gurutze Gorriak egiten dituen ekimen eta jardueretan umeen eta gazteen parte-hartzea sustatzean oinarritzen da. PINEOk gizarte eta hezkuntza arloan parte hartzeko espazio izan nahi du, eta bertan, modu progresiboan eta tutoretzapean, jolas- eta hezkuntza-ibilbidearekin, gizarte-trebetasunak hobetzea eta adingabeak balioetan heztea bultzatzen da zeharka, Gazteen Gurutze Gorriaren programa espezifikoak sustatzeaz gain.

Proiektua, euren boluntariotzako esperientzia hasten ari diren 8 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako jolas- eta prestakuntza-ibilbidea da. PINEOk funtsezko hiru helbururi erantzuten die:

- Ume gazteak pixkanaka boluntariotzaren parte gisa integratzea.
- Umeei eta gazteei zuzendutako espazio berriak garatzea, aisialdirako eta denbora liberako, inplikazio pertsonaletik eta kolektibotik abiatuta, euren testuinguru sozialean hautematen duten errealitatearekiko konpromiso solidarioan eta humanitarioan.
- Balioetan oinarritutako hezkuntza eta jarrera positiboaren sustapena bultzatzea, bizitako esperientzietatik abiatuta.

2024ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra, 115 ume artatu dira guztira.

Arreta Ospitaleratutako Umeak programarekin

Gazteen Gurutze Gorriak, Ospitaleratutako Umeak programaren bidez, ospitale-ingurunean umeari garatzen laguntzen dioten ekintzak gauzatzen ditu. Helburu nagusia ospitaleratutako ume,

nerabe eta gazteen bizi-kalitatea hobetzea da, jolas-jardueren bidez.

Bi ospitaletan egiten da: Basurtuko Unibertsitate Ospitalean eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean. Bertan, gainera, oso proiektu berria ari da gauzatzen: Tiritia irratia. Asteazkenean egiten den proiektu horretan, ospitaleratutako umeei eta gazteek ondoren Gurutzetako ESiren blogean argitaratuko den euren irratsaioa sortzen dute, ospitaleko gazteenen nahi gabeko bakardadea arintzeko.

Oro har, bi ospitaleen artean 470 umerekin egin da lan, eta zeharka gurasoekin.

Jostailu hezitzailea

Proiektu horren bidez, herritarrei informazioa, tresnak eta baliabideak eman nahi zaizkie, jolasa bezalako umeen hain behar garrantzitsuari aurre egiteko. Funtsezko 2 ildotan egiten da lan:

- Jolasen eta jostailuen erabilerari, tipologiari... buruzko informazioa eta sentsibilizazioa.
- Zailtasun sozialak dituzten familiei euren ardurapeko umeentzat beharrezkoak diren jolasak eta jostailuak ematea.

Urtean zehar, sentsibilizazioak egin dira Gazteen Gurutze Gorriaren proiektuetan parte hartzen

duten umeen gurasoekin eta tutoreekin, 10 tailerren bidez, eta talde horietako umeen taldeetan ere egin dira sentsibilizazioak. Gainera, udan 2 sentsibilizazio egin ziren kalean, eta jostailu-bilketa egun bi establezimenduan. Eta, neguko kanpainaren barruan, jolasaren astearen bidez jendearentzat irekitako 9 sentsibilizazio egin dira kalean, jostailu-bilketa egun bi, gutxienez 15 establezimendutan, eta jostailuak biltzeko 19 gune jarri dira gutxienez Bizkaia osoan. Era berean, proiektuaren berri eman da ekitaldi jendetsu batean: “peluxeen jaurtiketa handia”, Bilbao Basketekin batera. Azkenik, 1.519 umeri jostailu bat eman ahal izan zaie 2024an.

Udalekuak eta aisia eta denbora libre

Aisialdiko eta Denbora Libreko proiektuaren bidez, udan eguneko udalekuak egiten dira urtero, eta jolas- eta hezkuntza-giroan lan egitea bilatzen da, proiektuaren garapenean zehar boluntarioek diseinatuko dituzten jolasen, tailerren eta dinamiken bidez.

2024an, guztira, 167 umeei hartu dute parte, 2023an baino 64 gehiagok.



Gazteak

BBB tailerrak Bilboko ikastetxeetan

Bilboko Udaleko Osasun arloarekin lankidetzan egiten diren Bihotz-biriketako bizkortzeari buruzko tailerrak dira. Gurutze Gorriko irakasle-taldeak tailer praktikoak egiten ditu Bilboko hainbat ikastetxetan Batxilergoko 1. mailako ikasleekin. Zati praktikoa bi orduko iraupena duten 15 ikasle inguruko taldeekin egiten da, eta jardunbide hauen ikaskuntza transmititzen da:

1. Lehen mailako balorazioko jardunbideak.

- Konortearen balorazioa: alerta-hitza-mina ez du erantzuten (AVDN).
- Arnasketaren balorazioa: arnasbidearen irekiera (kopeta-kokotsa maniobra) eta arnasketaren egiaztapena (ikus-entzuntzen sentitu).

2. 2. Segurtasuneko albo-posizioko jardunbideak (PLS).

3. OVACEren balorazio-jardunbideak:

- Buxadura partziala duen pazientea; biktima ez tulka.
- Erabateko buxada duen paziente: maniobra konbinatua: kolpe interkapularrak eta konpresio abdominala (Heimlichen maniobra).
- Kasu bereziak: emakume haurdunak, pertsona lodiak eta umeak.

4. Bihotz-biriketako bizkortze-jardunbideak (BBB).

2024an tailerrak eman dira Bilboko 48 ikastetxetan, eta guztira 956 ikasle prestatu dira.

Oso egoera zaurgarrian dauden pertsonak

Oinarrizko premiei premiazko arreta ematea

Hainbat proiekturen bidez antolatzen den eta Gurutze Gorriak probintzian 2003. urtetik garatzen duen baliabide ekonomiko eta sozial urriak dituzten pertsonen eta familien zuzeneko arreta emateko programa da. 2024an, proiektu horretan 7.328 pertsonari eman zaie arreta. Horietatik % 58 emakumeak ziren eta % 42 gizonak.

Sendagaiak

Sendagaiak eskuratzeko programa, alde batetik, erroldatzeko tokirik ez dutelako edo OTI eskaeraren ezaugarriaren zain daudelako oraindik osasun txartelirik (OTI) ez duten, eta, beraz, farmazia prestazioen koordinketaren onuradun izan ezin direnei dago zuzenduta. Batzuetan, OTI zenbakia izan arren, erroldatzea galdu dutelako txartel baliozkoa ez duen jendea ere joaten da, edo, baliozkoa izan arren, sendagaia ordaindu ahal izateko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak, laguntza guztiak agortu direlako berriro kalean daudelako. Pertsona horiek ere programan hartzen ditugu. Kasu horietan, haiekin lanean ari den eta egoera hori egiaztatzen duen erakunderen batek bideratzen ditu. Eta azkenik, tratamendu kronikoak edo kostu ekonomiko handikoak dituzten eta horretaz arduratzeko baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak ere baloratzen ditugu. 2024an 1.066 pertsonari eman diegu arreta.

Higiene-produktuak

308 familia artatu dira zaurgarritasun-egoeran dauden familiei pixoihalak emanda.

Hornidurak ordaintzeko laguntza

Energia-pobreziaren kontrako borrokan zaurgarrienak diren kolektiboekin egiten dugulan. 827 familiari eman diegu arreta proiektu honetan, hornidurak eta zorrak ordaintzen lagunduz eta hornidura etetea saihestuz, etxeko kontsumoak uler ditzaten gaituz eta aurreztu ahal izateko jarraibideak emanez. Gainera, energia-eraginkortasuneko kitaren entrega kudeatzen da.

Elikadura-bonua – Hitzartuz

Proiektuaren bidez, pertsonen oinarrizko ondasunak eskuratu ahal izango dituztela bermatu nahi da, euren bizitzak baldintza duinetan garatu ahal izan ditzaten. Horretarako, proiektuak funtsezko 4 elementuri eragiten dien ikuspegi integrala ezartzen du:

- Pertsonen euren oinarrizko premiak berehala betetzen dituztela bermatzea.
- Denboran estaldurari eustea ahalbidetuko dieten gaitasunen garapena bultzatzea
- Pertsonen neurri horiek abian jarriz jardun dezaketela ziurtatzea
- Behar den laguntza eskaintzea, denboran zehar oinarrizko behar horiei erantzuteko gaitasunari modu iraunkorrean eusteko.

2024an 2.260 familiari eman zaie arreta, eta 6.229 entrega egin dira.





FEADetik Oinarrizko Material Laguntzako FSE+ Programara

2014az geroztik, Bizkaiko Gurutze Gorriak FEADen (Pertsona Behartsuenentzako Europako Laguntza Funtza) elikagaiak banatzen ditu. 2024an eskumenak autonomia erkidegoei transferitu zitzaizkien eta FSE+ Programa bihurtu zen. Zaindu beharreko pertsonen profila adingabeak ardurapean dituzten familiak dira. Aurten, Oinarrizko + Programatik 1.191 pertsonari eman zaie arreta.

Lagun Guneak

Elikagaien Bankuak eta Bizkaiko Gurutze Gorriak zentro integral bat kudeatzen dute Bilboko eta Getxoko udalerrietan, eta, bertan, zaugarritasun-egoeran dauden familiei arreta osoa ematen zaie. Arreta hori elikagaiak autozerbitzuko sistema baten bidez ematean datza, eta sistema hori behar duten erabiltzaileei eskaintzen zaizkien neurri osagarriekin osatzen da beti. 2024an 2.985 pertsona artatu ahal izan ditugu.

Kanpainak: Betaurrekoak, Umeentzako gosariak, eskolako materiala

Produktua biltzeko kanpainen eta kanpaina ekonomikoetan hartu da parte, dauden eskaerei erantzuteko eta emandako laguntzak osatzeko. Kanpaina horiekin 562 pertsonari eman zaie arreta.

Trapezistak- Etxerik gabe

Gurutze Gorriak 24 ostatu-plaza iraukor kudeatzen ditu, Peñaskal Kooperatibaren eskutik, prestakuntza-prozesuetan dauden gazteei bizioki-estaldura emateko. 2024an 88 gazte artatu dira.

Neguko kiten entrega

Neguko 815 kit eman zaizkie etxerik gabeko 697 pertsonari Bizkaian, batez ere Bilboko udalerrian.

Hotz-boladako Aterpetxea

2024an hotz olatua 14 gautan aktibatu da guztira, hainbat alditan:

- 1. aldia: 2024/01/07tik 2024/01/12ra, guztira 6 gau.
- 2. aldia: 2024/01/18tik 2024/01/20ra, guztira 3 gau.

- 3. aldia: 2024/03/02tik 2024/02/06ra, guztira 5 gau.

Gurutze Gorriak hainbat dispositibo izan ditu aurten etxerik gabeko pertsonari estaldura emateko hotz bolada deklaratu den tenperatura baxuko aldi horietan. Guztira, 14 egunetan, 228 plaza aktibatu dira, 2.469 plaza izan dira aldi osoan, eta horietatik 1.489 plaza bete dira. 2024an, kudeaketa zuzeneko 3 aterpetxe ireki eta 195 plaza eskaini dira, hotz boladan gaua igarotzeko 2.075 plaza. Horietatik 1.149 plaza bete dira, % 60.

Zaugarritasun-egoeran dauden familientzako tailerrak

Etxeko ekonomia

622 pertsonari eman zaie prestakuntza 73 tailerretan, etxe barruko kontsumoetan aurrezteko, energiaren fakturak interpretatzeko edo energia eraginkortasuneko neurriak hartzeko...

Elikadura kontzientea

694 pertsonari eman zaie prestakuntza 81 tailerretan, elikadura osasungarriari, jasangarriari, sasokoari eta elikagaien kontserbazioari buruz.

Migratzaileak

Gaikuntza-ekintzak eta tailerrak

Gurutze Gorriaren helburua migratzaileen bizikaltatea hobetzea da, intereseko izan daitezkeen eremuetan hainbat gaikuntza eginez. Egiten diren tailerren artean hauek azpimarra ditzakegu:

Hilekoaren osasuna

Tailer honen helburu nagusia ohitura osasungarriak edo/eta hilekoaren osasunarekin eta higienarekin erlazionatutako arrisku jokabideak ezagutzen ez dituzten eta zaugarritasun egoera berezian dauden emakumeen osasunaren kudeaketa hobetzea da. Tailerrarekin batera, hileroko kopak ematen zaizkie parte hartzaile guztiei. Hilekoaren osasunari buruzko bi tailer egin dira, eta 27 emakumek hartu dute parte.

Anemia faltziformea

Gaixotasun ohikoagoa da talde etniko jakin batzuetan, batez ere jatorri afrikarreko

pertsonetan, baina Ekialde Hurbileko jatorri mediterraneoan, jatorri kaukasiarra, indiarra, hispanoa eta natibo amerikarra duten pertsonen ere eragiten die, besteak beste. Tailer horren helburu nagusiak hauek dira:

- Herritar guztiei anemia faltziformearen berri ematea eta anemia hori duten pertsonen zer dakarkien jakinaraztea.
- Gurutze Gorriak artatutako etorkinak sentibilizatzea eta informatzea Anemia Faltziformearen, Covidaren, GIBaren, Tuberkulosiaren eta C Hepatitisaren alarma-seinaleen inguruan, diagnostiko goiztiarra egin ahal izateko, aholku genetikoaren barne.
- Atxikimendu Terapeutikoko proiektuko jarduerak eskaintzea anemia faltziformea duten pertsonen.

Osasun arlotik 3 prestakuntza eman zaizkio migratzaileen kolektiboari.

Gainera, hezkuntza-ibilbide bat ezarri da, eta 27 emakumeen beharren arabera ematen dira saio horiek.

PERTSONEN GURUTZE GORRIA

- Ingurunearen ezagutza.
- Ohitura osasungarriak.
- Ongizate emozionala eta pertsonala.
- Kontsumo arduratsua.
- Generoa eta sexualitateak.
- Familiak eta amatasunak.
- Salerosketa.
- Sare sozialak.
- Autoebaluazio pertsonala.
- Komunikazio-estiloak.

Harrera

Programa honetan, zaurgarritasun sozial eta ekonomiko handiko egoeran dauden eta oinarritzko premiak betetzeko beste prestazio publiko batzuk jaso ezin dituzten migratzaileei ematen zaie arreta.

Proiektutik ostatua, janaria, garraioa eta hain premiazkoak ez diren beste behar batzuk estaltzen dira.

2024an harrera etxebizitzan 19 pertsona bizi izan dira, guztiak familia kargarik gabeko gizonak, batez ere marokoarrak eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetakoak.

NAZIONALITATEA / ADINA	18-23	24-35	36-45	>46	Guztira
Ginea Konakry	1	0	0	0	1
Maroko	3	13	1	1	18
Aljeria	0	0	0	0	1
Mali	0	0	0	0	3
Senegal	0	0	0	0	1
Guztira	4	13	1	1	19

2024an 18 pertsonak jaso dituzte laguntza ekonomikoak, eta horietatik 15 gizonak dira, gehienak familia kargarik gabe, eta 3 emakumeak, gehienak familia kargekin.

Elkarrekin Biziz Kultur Tailerra

Proiektu honen helburua behar duten pertsonen gaztelaniaren praktika eta ikaskuntza testuinguru esanguratsurako sarbidea erraztuko dieten tresnak eskaini ahal izatea da. Horretarako, funtsezko hiru jarduera ezarri dira: gaztelaniako tailerrak, kultur jarduerak eta elkarrizketa saioak (Hizkuntza Bikoteen programa eta elkarrizketa

taldeak). Ekintza horiek guztiak boluntario-talde baten bidez gauzatzen dira.

- **Gaztelaniako eskolak:** boluntarioek ematen dituzte, eta jarduera egunero egiten da. Hainbat maila eskaintzen dira: alfabetatzea, A edo B maila eta hizkuntza-bikoteak, elkarrizketa hobetzeko. 2024an 358 pertsonak hartu dute parte.
- **Hizkuntza-bikoteak:** Programa hau lurraldean denbora gehiago daramaten atzerritarrei dago zuzenduta, edo/eta hizkuntza hobeto dakitenei, baina bertako pertsonekin harreman gutxi dutenei, gizarte hartzailearen alderdi kulturei buruzko ezjakintasun handia dutenei eta laguntza-sare ahula edo hutsala dutenei. Aurten 89 bikote linguistiko izan ditugu jardueran.
- **Irteera kulturalak:** Jarduera kulturalen planteamendu orokorra, gaztelaniako eskola edo tailerretarako lagungarri izateaz gain, erabiltzaileei leku interesgarriak eta harrera kulturalaren alderdi interesgarriak ezagutarazteko balio izatea da, guztia giro lasaiagoan eta erlaxatuagoan. 2024an 9 irteera kultural egin dira.

Aholkularitza juridikoa-Aholku Sarea

Zerbitzu hori Aholku Sarearen barruan dago, eta atzerritartasunari buruzko aholkularitza juridikoa ematean oinarritzen da.

Migratzaileen beharrak arreta integralaren ikuspegitik betetzen ditu, atzerritarren dokumentu-estatusarekin erlazioatutako eskaera guztiei erantzunez.

Gurutze Gorriak ematen duen zerbitzuak ez du alde aurreko onarpen-irizpiderik: Atzerritartasun Zuzenbidearekin erlazioatutako informazioa eskatzen duen eta zaurgarritasun-egoeran dagoen pertsona oro artatzen da, bertakoa zein atzerritarra izan.

Era berean, lehen mailako arretan lan egiten duten talde profesionalen lana errazten laguntzen dugu, hala nola oinarritzko gizarte zerbitzuena eta atzerritarrekin lan egiten duten beste erakunde batzuetako langileena.

Guztira, 527 erabiltzaile ireki zaie espedienteak. Jatorrizko lurraldeen eta artatutako pertsonen sexuaren arabera datuak hauek dira:

Nazionalitatea	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Tasa
Saharaz hegoaldeko Afrika	19	49	68	% 12,9
Asia	3	2	5	% 0,9
Europa ez komunitarioa	8	7	15	% 2,8
Latinoamerika	216	129	345	% 65,6
Magreb	21	61	82	% 15,5
Europar Batasuna	8	4	12	% 2,3
Guztira	275	252	527	% 100

Erabiltzaileen % 52 emakumeak dira, eta % 48 gizonak. Erabiltzaileen bi heren Latinoamerikatik datoz.



Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak

Gohiabe

Programatik Nazioarteko Babesaren eskatzaileen eta onuradunen integrazioa bilatzen da, baita Nazioarteko Babesaren eskaera ukatu zaienena ere. Programak beste baliabiderik izan gabe oso egoera ahulean geratzen diren pertsonen oinarrizko beharrak asetzea bilatzen du.

2024an 94 kasu artatu dira, horietatik 40 emakumeak izan dira eta 54 gizonak.

Ekintza itundua

Bizkaiko Gurutze Gorriak Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren (MISSM) ardurapean dagoen Nazioarteko eta Aldi Baterako Babeserako Harrera Sistemaren (SAPIT) kudeaketan parte hartzen jarraitzen du. Sistema

horren hartzaileak ekonomia- eta baliabide-zaurgarritasun egoeran dauden Nazioarteko Babesaren eskatzaileak edo onuradunak edo aberrigabeak dira.

Bizkaiko Gurutze Gorriak SAPITen ibilbidearen bi fasetan gauzatzen du ekintza itundu hori: harrera-fasean eta autonomia-fasean.

Harrera-fasean 17 ostatu-baliabide daude Bizkaiko Lurralde Historikoan sakabanatuta, eta horien guztien artean gizonen, emakumeen eta familien profiletan 82 plaza osatzen dituzte. Hala, 2024an, guztira 153 pertsonari eman zaie arreta Bizkaiko Gurutze Gorrian, SAPITen bi faseak kontuan hartuta.



Gizarte arloko zailtasunak dituzten emakumeak

Atenpro

Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako segurtasun-dispositibo mugikorra. 2024an 8 emakumek erabili dute zerbitzu hori.

Langabeak edo lan-prekarietate egoeran daudenak

Enplegarritasuna Aktibatuz

Proiektu honek enplegarritasunari laguntzeko zerbitzu integrala eskaintzen die egoera zaurgarran dauden pertsonari. Lan-baimena duten 135 migratzaile artatu dira, eta horietatik 32 lan-merkatuan sartu dira.

Proiektu bereziak: arreta soziosanitarioa eta oinarrizko zereginak ostatuetan

30 pertsonarekin lan egin da prestakuntza bakoitzean, arreta soziosanitarioan eta ostatuetak oinarrizko zereginetan gaitzeko, eta horietatik 10 pertsona laneratu dira.

Bilboko Orientazio Zentroa

Orientazio Zentroa Bilbon abian jarritako lan orientaziorako gunea da. 157 emakumerekin lan egin da, lan arloan informatzeko eta orientatzeko.

Gernikako enplegu-zentroa

Enplegu Zentroa Gernikan abian jarritako orientaziorako eta lana bilatzeko gunea da. 2024an, 179 pertsonak hartu dute parte lana bilatzen.

Presoak edo preso ohiak

Proiektua askatasunaz gabetutako pertsonen zentroetan

2024an, Basauriko zentroan espetxe erregimenean dauden pertsonekin egin da

lan, hainbat trebakuntza tailerren bidez, 203 pertsonari arreta emanez.



Desgaitasuna duten pertsonak

Garraio egokitua

Zerbitzu hori mugikortasun murriztua duten 113 pertsonak erabili dute 2024an.

ematen dizkie premia fisikoren bat duten pertsonari, haien bizi-kalitatea hobetzeko. 2024an guztira 481 pertsona artatu dira.

Laguntza teknikoak

Gurutze Gorriak laguntza teknikoak, hala nola makuluak, gurpil-aulkiak edo ohe artikulatuak,

Osasun-arazoak dituzten pertsonak

Entzuten zaitu

Zerbitzu horrek telefono bidezko arreta ematen du estatu mailan, behar duten pertsona guztien lasaitze emozionalerako. Bizkaian, proiektuaren orientazio zerbitzuak ematen du arreta, eta

baliabide espezifikoagora bideratu daiteke. Gaur egun, 12 pertsonak jarduten dute guztira zerbitzu horretan, eta 2024an 158 deiri erantzuten lagundu dute.

Biztanleria orokorra eta beste kolektibo batzuk

Lurreko eta uretako prebentio-zerbitzuak eta konbinatuak

Prebentio-zerbitzuak, jende asko dagoelako edo ekitaldiak ezaugarri bereziak dituelako aurreikus daitezkeen arriskuak dituen ekitaldi edo jardunaldi bat estaltzeko Gurutze Gorriak egiten duen aurretiazko plangintzaren ondoriozko antolaketa eta arreta soziosanitarioko jarduketak dira. 2024an itsasoko 55 prebentzio egin dira, eta lehorreko 742.

Esku-hartzea larrialdietan

2024an Gurutze Gorriak SOS Deiak-en bidez eskatu zaizkion 27 larrialdi-egoeratan parte hartu du.

Esku-hartze horietan 74 ibilgailu eta talde espezializatuak 123 pertsona mobilizatu dira:

- Aterpetxeko ERIEak aterpetxeko eremuak antolatzen ditu, eta babes- eta higiene-elementuak ematen ditu, baita elikagaiak eta edaria ere.

- Esku-hartze psikosozialeko ERIEak biktimei arreta integratzailea ematen die, eragina jasandako pertsonak dituzten behar psikologikoak, sozialak edo/eta sanitarioak asetzeko.
- Ur-ingurune bilaketa eta salbamenduko ERIE, ibai, urtegi eta enbaltseetako bilaketa-, salbamendu- eta erreskate-lanetan.
- Lurreko bilaketa eta salbamenduko ERIE, mendiko eta landa-ingurune bilaketa-, salbamendu- eta erreskate-lanak planifikatzen eta gauzatzen hartzen du parte.

Lanbide Heziketako zentroa: prestakuntza-graduak

Gurutze Gorriaren xedea, ikuspegia eta printzipioak kontuan hartuta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan beti dago presente balioak transmititzearen garrantzia eta beharra, pertsonak garapen integralean prestatzeko.



Urte hauetan zehar, Proiektuen Kultura ezartzean oinarritutako Berrikuntzaren Kudeaketa ereduak bultzatzen eta horretan aurrera egiten ari gara. Era berean, metodologia didaktiko berriak txertatu ditugu ERRONKETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA AKTIBO ETA KOLABORATIBOAREN barruan. Horrek aukera ematen die ikasleei arrazoiketa eta iritzi kritikoa garatzeko, galderen formulazioa estimulatzeko, benetako arazoak eta konponbideak proposatzeko, irizpideak garatzeko, egoerak aztertze eta ondorioak ezartzeko. Aurten ere, Lanbide Heziketako zentroak ERASMUS programan parte hartu zuen, ikasleek praktikak atzerrian egin ditzaten, eta, berrikuntza gisa, irakasleen trukea sustatu zen, beste hezkuntza errealitate batzuk ezagutzeko.

Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Erizaintzako Laguntzaileen Zainketa-teknikaria (A ereduko bi talde).
- Osasun-larrialdietako Teknikaria (A eredu).
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikaria (D eredu).

Goi Mailako Heziketa Zikloak:

- Gizarteratzeko Goi-mailako Teknikaria (B ereduko hezkuntza-eskaintza).
- Dietetikako Goi-mailako Teknikaria (A eredu).
- Laborategiko eta Diagnostiko Klinikoko Goi-mailako Teknikaria (B eredu).
- Produktu farmazeutiko, bioteknologiko eta antzekoen fabrikazioko Goi-mailako Teknikaria (B eredu).

2024an 16 talderekin eta 400 ikasle ingururekin egin da lan.

Gurutze Gorriaren titulazioak

Bizkaiko Gurutze Gorriak titulazio propioak ditu erakundearen izaerarengatik espezialista den eremuetan.

- Lehen sorospenak.
- Desfibrilazio erdiautomatikoak.
- Uretako sorospena.
- Elikagaien manipulazioa.
- Zeinu-hizkuntza.
- Boluntarioen jarduerarako hainbat prestakuntza-ibilbide.

Profesionaltasun-ziurtagiriak

Ikastaro horien titulazioak profesionaltasun-ziurtagiria dakar.

- Osasun-garraioa (400 ordu).
- Uretako naturguneetako sorospena (370 ordu).
- Aisialdiko jardueren dinamizazioa (150 ordu).

SEPE espezialitateetako prestakuntzak

- Gaitasun digitalak.
- Lana bilatzeko eta laneratzeko teknikak.
- 2. MAILAKO funtsezko gaitasunak.
- Zeinu-lengoaia.
- Laguntza psikologikoa krisi-egoeretan.
- Esku hartze psikosoziala gaixotasun mentaletan.

Henry Dunant Aisialdi Eskola

2024an 37 ikaslek hartu zuten parte Aisialdiko Begiraleen 3 ikastaroetan.

2024	PRESTAKUNTZA-EKINTZAK	IKASLEAK
Enplegurako prestakuntza: Profesionaltasun-ziurtagiriak eta SEPE espezialitateak	14	262
Kanpoko erakundeentzako prestakuntza	151	2.484
Partikularrentzako prestakuntza	80	983
Gurutze Gorriaren erabiltzaileen prestakuntza	67	1.236

Ingurumenarekiko sentsibilizazio-jarduerak

Hiri hondakinen eta uraren kudeaketa integraleko zirkuituak ezagutzeko eta "One health - Osasun bakarra" eta hiri hondakinen kudeaketari buruzko ikastaro eta tailer espezifikoak eginez, sentsibilizazio ekintza ugari egin dira arlo horretan.

Alde batetik, Ingurumen Hezkuntzako irteerak egin ditugu, ingurumen arlotik interesekoak diren zentroak bisitatuz. Bisitak egin dira Kooperako eta Artigaseko plantara, gure egunerokotasuna osatzen duten materialak birziklatzeko eta berrerabiltzeko prozesuak ezagutzeko. Bestalde, aurten, ingurumen arloko hezkuntzaren ardatzak ekintza horri heldu dio, besteak beste, kutsadurari eta osasunari, hondamendi naturalen prebentzioaren kudeaketa komunitarioari eta klima-larrialdiei buruzko hitzaldien bidez. Halaber, hitzaldiak eman dira naturguneetan, inguru horietako bizitza ezagutzeko, hala nola PIEk (Plentziako Itsas Estazioa) eta SAREUS elkarteak sustatutako foken, dortoken eta baleen

lehorratzeari buruzko jarduerak. Etxeetan hondar-kudeaketa egokia sustatzeko, hondakinen bereizketari buruzko tailerrak antolatu dira, hezkuntza-laguntzako proiektuetan parte hartzen duten umeak dituzten familientzat. Horrela, kolektibo zaurgarrienei beharrezkoak diren trebetasunak ematen dizkiegu, ingurumenaren degradazioak eragindako inpaktua saihestu ahal izateko. Guztira 80 pertsonak jaso dituzte ingurumenari buruzko sentsibilizazio tailer eta saio horiek.

Ingurunearen hobekuntza

Aurten, hainbat inguruetan hondakinak biltzeko irteerak egiten jarraitzen dugu. Libera proiektuaren bidez, La Bola hondartzan (Getxo), Bolue ibaian (Leioa), Larreagaburu parkean (Bilbo) eta Galdames ibaian (Galdamesko San Pedro) aurkitutako hondakinak bildu eta aztertu dira. Aldi berean, garbiketak egin dira Artxandan, Derion eta Bermeon. Jarduera horietan 153 boluntariok parte hartu dute guztira.

Karbono dioxidoaren isurien konpentsazioa

783 familiari eman diegu arreta, etxeko kontsumoak uler ditzaten lagunduz eta aurrezteko jarraibideak emanez. Gainera, 14 etxe bisitatu ditugu energia-auditoretza bat eginez, instalazioak berrikusiz eta energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren etxetresna elektrikoaren erosteko kudeaketa, baita energia-eraginkortasun handiagoaren aldeko birgaitzeak egin diren 8 etxe ere. Energia-pobreziaren kontrako borrokan zaurgarrienak diren kolektiboekin egiten dugu lan. Beste konpentsazio bide bat basoberritzea izan da, "+CO(MPENSA)2" proiektuaren bidez. Basoberritze hori Zallan dagoen "El Mazuco" mendian egin da 2024ko martxoaren 16an, 2022ko urriaren 23an izandako sutearen ondoren. Basoberritze horri esker, 10 hektareatan zehar espezie autoktonoekin naturgune bat birsortu ahal izan da, eta Gurutze Gorriko 100 boluntariok baino gehiagok parte hartu dute

PERTSONEN GURUTZE GORRIA

bertan. Basoberritutako eremu hori baliagarria izango da aurretik su hartu duten inguruneetako biodibertsitatearen garapenari buruzko etorkizuneko ikerketetarako.

Ekosistemen zainketa eta hainbat ingurunetan biodibertsitatearen garapenaren gainbegiraketa

Ibaietan zein hondartzetan uraren analisia egin da, eremu bakoitzaren egoera ekologikoa aztertzen duen "Aztertuz" programari datuak emateko. Horrez gain, Zallan egindako basoberritzeari esker, lehendik sute batek kaltetutako ekosistema berri horren garapenari buruzko ikerketarako balio duen espazio garrantzitsu bat lortu ahal izan da.

Istripuen prebentzioko, salbamenduko eta hondartzetan laguntzeko zerbitzua

Istripuen prebentzioko, salbamenduko eta hondartzetan laguntzeko zerbitzua, Gurutze Gorriak 2024an Bizkaiko kostaldean eman duen

Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzua da, lurraldeko hondartza guztietan dauden prebentzio eta osasun beharrei erantzuteko. 2024an, 2.462 pertsona artatu dira osasunari dagokionez eta 5.893 laguntza sozial egin dira.

Itsas laguntza

Itsas Salbamenduko Zerbitzuak prebentzio-lanak egiten ditu nabigaziorako segurtasunean eta itsasoko jardueretan, bai eta pertsonentzako arriskutsuak izan daitezkeen egoeretan laguntza eman ere. 2024an 108 pertsona artatu dira, 344 larrialditan parte hartu da eta esku hartzen duten taldeen 185 entrenamendu ariketa egin dira.



Gizartea mugiaraziz

M8 Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8an, Emakumearen Eskubideen eta Nazioarteko Bakearen aldeko Nazio Batuen Eguna dela-eta, Gurutze Gorriak genero-berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin dugun konpromisoa adierazi nahi izan du. 2024an, feminismoaren eta emakume guztien ahalduntzearen alde lan egiten jarraitu dugu, eta gure lan agendaren azalean feminismo hitza jarri dugu berriro, ekitatearen aldeko borrokaren aldarrikapen gisa, eta "Emakume horiek" merezi duten garrantzia emanez. Horregatik, "Emakume horien aztarnek markatzen dute gure bidea" lelopean, hainbat sentsibilizazio ekintza egin dira.



M2 Eskola jazarpenaren kontrako Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 2an Bullying-aren kontrako Nazioarteko Eguna da. 2024an, "Errespetua erein, aldaketa bildu!"

lelopean, Gurutze Gorri Gazteak sentsibilizazioak egin zituen bere taldeak osatzen dituzten umeekin.



M17 LGTBIFobiaren kontrako Nazioarteko Eguna

Maiatzaren 17an, 1990ean Osasunaren Mundu Erakundeak homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendetatik kendu zuela ospatu zen. Diskriminazioaren kontrako egun horretan transfobia eta bifobiagatik jasaten den diskriminazioa gogora ekarri nahi dugu, baita ahaztea saihestu ere.

2024an, eta "Pertsona askorentzat, hau ez da letra txikia, euren egunerokoa da" leloarekin, Gurutze Gorrian sentsibilizazioak egin ziren Gazteen Gurutze Gorriko taldeak osatzen dituzten umeekin.

E5 Ingurumenaren munduko eguna

Ekainaren 5a, Gurutze Gorriaren egutegian markatutako data, ezinbesteko hitzordua da herritarrak bizi garen Ingurumenaren garrantziaz sentsibilizatzen jarraitzeko. Aurten, ingurumena zaintzeko gutako bakoitzak egin ditzakegun banakako aldaketa txikien garrantzia eta aldaketa horiek maila globalean eragiten duten modua nabarmendu nahi izan dugu.

2024an, Gazteen Gurutze Gorriak hainbat sentsibilizazio ekintza egin ditu Gazteen Gurutze Gorriaren proiektuetan parte hartzen duten umeekin.

Ingurumenaren arlotik laguntza eman da alor horren nazioarteko egunean, Libera proiektuko hondakinen karakterizazio eta bilketa kanpainan parte hartuz. 2024an bilketa bat egin da Leioako Gobela ibaian.

Guztira 25 kg hondakin bildu ziren, eta horien artean 15 kg ontzi eta bestelako plastiko nabarmentzen dira.



A25 Emakumearen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna

Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpen bidez, azaroaren 25a "Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna" izendatu dute Mirabal ahizpen omenez.

2024an, eta "Lagun, oraindik ez zara konturatu?" lelopean, 2 sentsibilizazio kalean, sentsibilizazioak adingabeekin lan taldeetan eta lan kontratudun langileentzat barne sentsibilizazioak egin dira.

GIBaren eta HIESaren aurreko erantzunaren munduko kanpaina

Abenduaren 1a, GIBaren eta HIESaren aurreko Erantzunaren Munduko Eguna, ezinbesteko hitzordua da Gurutze Gorriaren egutegian, gure kezka eta itxaropenak gainerako biztanleekin partekatzeko. Beraz, Gazteen Gurutze Gorriarekin batera, sentsibilizazio-kanpaina hau jarri da martxan berriro ere, Osasunaren sustapenaren esparruan.



Nazioarteko lankidetzaren

Nazioarteko Lankidetzaren esparruan, Garapenerako Hezkuntzaren barruan sentsibilizazio tailerretan egin da lan, eta 105 pertsonak parte hartu dute 3 prestakuntza ekintza desberdinetan.

3.5

Gazteen Gurutze Gorria

Gazteen Gurutze Gorriak, elkarteak osatzen dugun guztiok parte aktiboa eta adierazgarria izango garen parte-hartze eredu baten alde egiten du. Aldi berean, eta parte-hartze eredu horretatik abiatuta, GGGk gizarte eta hezkuntza alternatiba bat eskaintzen die umeei eta gazteei, eta gizarteari, oro har. Horregatik, umeei eta gazteek programetan, proiektuetan eta jardueretan eguneroko jardunean eta esku-

hartzean parte har dezaten sustatzen eta errazten dugu, eta jardunbide demokratikoak sustatzen ditugu elkarteetan, gure gobernu, zuzendaritza eta aholkularitza organoen bidez. Hori da umeei eta gazteek parte har dezaten eta GGGrekin identifika daitezten modurik onena, eta, horrela, elkarte batean erabat parte hartzeko aukera eskura dezaten.

Gazteen Atala

Bizkaiko Gurutze Gorriak Gazteen Gurutze Gorriaren gobernu-organoko propioak dituzten Tokiko 4 Batzar ditu, probintzia-eremuaz gain.

- Barakaldoko tokiko batzarra.
- Nerbioi Haraneko tokiko batzarra.
- Enkarterriko tokiko batzarra.
- Eskuinaldeko tokiko batzarra.

Boluntario gazteak ordezkatzeko gehienak emakumeak dira, eta batzar batean bakarrik da gizon bat zuzendari.

2024an, gobernu organoaren erreleboa landu da, 2025ean hauteskunde prozesuaren ondoren berriro ahal izateko.



04



HORRELA KOAK GARA, HORRELA EGITEN DUGU LAN

4.1	Giza taldea	62
4.2	Berdintasuna	70
4.3	Jasangarritasun instituzionala eta finantzarioa	71
4.4	Enpresak	76

Giza taldea

Boluntariotza

Boluntariotza mugimendua, Gurutze Gorriaren jardueraren DNA eta elementurik funtsezkoena da. Boluntarioek, konpromiso solidarioaren bidez, modu aktiboan erantzuten diete gaur egungo zaugarritasun moduei. Adinekoen isolamendua murrizteko lan egiten dute, istripuen biktimei laguntza emateko, edo erreskateko aktibazioetan laguntzeko. Umeak eta gazteak balioetan hezten dituzte eta ospitaleratutako umeei laguntzen ahalegintzen dira, eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen eta laneratzen laguntzen dute. Osasuna zaintzearen garrantzia sustatzen dutenak eta ingurumen proiektuen bidez mundu jasangarriagoa eraikitzen laguntzen dutenak ere badira. Ildo horretan, esan daiteke boluntariotza dela Gurutze Gorria bultzatzen duen benetako motorra, eta hori egiten dutenentzat benetako bidaia eraldatzailea dela. Boluntarioen bitzita aldatzen duen bidaia bat da, baita ahalegin hori jasotzen dutenena ere. 2024ko boluntario kanpainak adierazten duen bezala, Gurutze Gorrian boluntario izatea gure bertsiorik onenera egindako bidaia da. Mugimendu horren guztiaren kudeaketa eta garapen egokirako, Bizkaiko Gurutze Gorriak

boluntarioak ekintzaren erdigunean jartzeko ikuspegi sendoaren alde egiten jarraitzen du, boluntarioen elkartasuna bideratzeko aukera ematen duten proposamen sorta zabalarengatik eta boluntarioak hedatzeko moduarengatik nabarmenduz. Horrela, sustatzen dugun boluntariotza-ereduak, eraginkorra izateaz gain, parte hartzen dutenentzako motibazio- eta gogobetetze-iturri ere izan nahi du. Horren ondorioz, boluntariotza kudeatzeko sistema bat garatu dugu, irisgarritasunean, malgutasunean eta boluntario bakoitzaren beharretara egokitzean oinarrituta. Laguntza, jarraipena eta prestakuntza eskaintzen dituen ereduaren, eta, gainera, lan solidarioari dagokion gogobetetzea indartzen duenaren alde egiten dugu. Laburbilduz, eredu dinamiko eta moldagarria da, banakako parte-hartzea errazten duena eta, aldi berean, erakundeari aukera ematen diona inguruneko aldaketei azkar erantzuteko, giza baliabideak eta soluzioak sor daitezkeen behar berrietara egokituz.

Boluntariotzaren IX. Topaketa Autonomikoa

2024an, urtero bezala, Boluntariotzaren Topaketa Autonomikoa egin da. Oraingoan Eibarren izan zen, Gipuzkoan, ekainaren 8an. Ekitaldi hau benetako klasiko bihurtu da gure lurraldean, eta Euskadiko Gurutze Gorriko boluntario guztientzako topaketa eta ospakizun jardunaldia antolatzea du helburu. Gainera, giro lasai eta alaian egin nahi du, baina Erakundearen gizarte-oinarri osoa lotzen duten xedea eta printzipioak ahaztu gabe.

Hirugarren urtez jarraian, 2022an Gasteizen inauguratutako eta boluntarioen artean beti oso harrera ona izan duen FestiVOL formatuaren aldeko apustua egin da. Ospakizunean Euskadiko hiru Lurraldeetako ia 330 pertsonak hartu zuten parte, eta Eibarko udalerriaren bihotzean egin zen, Errebal Plazia eraikinaren barruan eta kanpoan. Festa giroa izan zen topaketan gehien nabarmendu zena. Bertan, musika, gure ezagutza arloetako jarduerak eta jardunaldiaren esparru orokorra jarri zuen giro bikaina nabarmendu ziren.




Boluntarioen profila

Azken urteotan, Gurutze Gorriak bere kudeaketa eguneratzeko ahalegina egin du, fokua teknologia digitaletan eta datuen kalitatean jarritz. Estrategia horren barruan, joan den ikasturtean bezala, Bizkaiko Gurutze Gorriak bere datu-baseak berrantolatzen jarraitu du. Faktore horrek, urteko memoriaren formatu berriarekin eta haren neurketa erduekin batera, aurreko edizioen eta 2024ko memoria honen artean egon litezkeen aldeak azaltzen ditu. 2024an, Bizkaiko Gurutze Gorriaren oinarri sozialean 8.208 boluntario baino gehiago zeuden. Horietatik 2.888k konpromiso irekia eta dedikazio aktiboa dute proiektuetan, eta 5.320k, berriz, noizbehinkako harremana dute erakundearekin.



Urtero bezala, Gurutze Gorriarekin boluntariotza egitea eskatzen duten pertsonen kopurua da erakundearen osasuna neurtzeko beste adierazle bat, urtero hurbiltzen diren pertsonen fluxua adierazten baitu, boluntariotzaren bidez eta gure programen eta proiektuen bidez parte hartzea bilatuz. Oraingoan, adierazle horrek esan digu lankidetzan aritzeko interesa duten 1.200 pertsona baino gehiago daudela. Esan daiteke Gurutze Gorriaren proiektuetan emakumeek parte hartzen dutela gehienbat. Joera hori aurreko urteetan ere sumatu zen, eta 2024an % 57tik gorakoa da emakumeek Erakundearen parte hartzea.



Gurutze Gorriko boluntarioen beste balio soziodemografiko bat adinaren aldagaiaren eskutik dator. Ikus daitekeenez, Bizkaiko Gurutze Gorriak adin guztietako boluntarioak ditu. Parte-hartze handiena 40 eta 49 urte bitarteko pertsonen izan dute.

Adina	%
< 20	% 2,26
20-29	% 18,96
30-39	% 19,50
40-49	% 26,76
50-59	% 18,86
60-69	% 8,14
70-79	% 4,51
80-89	% 0,96
≥ 90	% 0,05
Total	% 100

2024an, Bizkaiko Gurutze Gorriko boluntarioek, guztira, ia 98.000 orduko jarduera boluntarioa egin dute erakundearen. Ekintza solidario hori guztia Gurutze Gorriaren jardueren bidez bideratzen da, eta, batez ere, hainbat jakintza-erlotako planen eta programen bidez banatzen da. Hala, Gizarteratzearen arloa da partaidetza-erloteko handiena biltzen jarraitzen duena, eta, ondoren, Sorospen eta Larrialdiek eta Gazteen Gurutze Gorria. Hala ere, beste arlo batzuek, hala nola Ingurumenak, Osasunak, Enpleguak eta Hezkuntzak, hazten jarraitzen dute, eta boluntario ugari erakartzen dituzte. Era berean, boluntario askok ez dute euren lana proiektu espezifikoetan edo zaugarritasun profil zehatzetan zentratzen,

baizik eta kudeaketatik, laguntza administratibotik edo zeregin osagarrietatik laguntzen dute, besteak beste. Borondatezko parte-hartze mota horrek funtsezkoa izaten jarraitzen du Erakundearen funtzionamendurako eta haren Xedearen irismenerako.



Prestakuntza

Gurutze Gorriaren programa eta proiektuetan lan egiten duten boluntarioen barne-prestakuntza balio garrantzitsua da gure hezkuntza-estrategian, profesionaltasun eta kalitate handiagoko dakarrelako erakundeak gauzatzen duen ekintza bakoitzean.

Urtean zehar 61 ikastaro egin dira eta horietan 1.152 boluntarioek hartu dute parte.



Langileak

	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Hondartzarik gabe	198	89	287	58,93
Hondartzak	39	161	200	41,07
Guztira, oro har	237	250	487	100
Arloa	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Administrazioa eta Kudeaketa	12	6	18	3,70
Funtsen Kaptazioa eta Aliantzak	10	5	15	3,08
Gazteen Gurutze Gorria	3	1	4	0,82
Hezkuntza / Prestakuntza	37	22	59	12,11
Enplegua	2	1	3	0,62
Gizarteratzea	114	30	144	29,57
Marka eta Komunikazioa		1	1	0,21
Ingurumena	1		1	0,21
Sorospenak eta Larrialdiak	54	184	238	48,87
Boluntarioak eta Toki Garapena	4		4	0,82
Guztira, oro har	237	250	487	100
Batzarrak	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Durangaldeko EB	3	1	4	0,82
Enkarterriko EB	5		5	1,03
Lea artibaiko EB	1	4	5	1,03
Eskuinaldeko EB	5	7	12	2,46
Ezkerraldeko EB	3	1	4	0,82
Arratia haraneko EB	2	1	3	0,62
Nerbioi haraneko EB	5	4	9	1,85
Bermeoko TB	2	6	8	1,64

Batzarrak	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Bilboko TB	37	13	50	10,27
Probintzia Bulegoa	166	211	377	77,41
Busturialdeko EB	5	1	6	1,23
Uribe Kostako EB	2		2	0,41
Barakaldoko TB	1	1	2	0,41
Guztira, oro har	237	250	487	100
Lanaldi motaren arabera	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Lanaldi osoa	175	225	400	82,14
Lanaldi partziala	62	25	87	17,86
Guztira, oro har	237	250	487	100
Kontratu mota	Emakumeak	Gizonak	Guztira, oro har	%
Kontratu mugagabea	172	222	394	80,90
Aldi baterako kontratua	65	28	93	19,10
Guztira, oro har	237	250	487	100




Bazkideak



■ EMAKUMEAK ■ GIZONAK ■ ENPRESAK

BAZKIDEEN BILAKAERA URTEZ-URTE	EMAKUMEAK	GIZONAK	ENPRESAK
2020	14.812	10.058	507
2021	14.599	9.905	514
2022	14.288	9.835	506
2023	14.396	10.006	494
2024	14.241	9.947	466



■ EMAKUMEAK ■ GIZONAK ■ ENPRESAK

Berdintasuna

2018az geroztik, Erakundearen kulturean, egituretan eta esku hartzeko ereduetan genero ikuspegia aplikatzeko dugun konpromiso sendoa agerian utzi zuen Genero Estrategia dugu. Estrategia horren arabera, Gurutze Gorriko arlo guztiek gizonen eta emakumeen zirkunstantzia, rol eta premietan dauden aldeak aztertuz planteatuko dituzte euren proiektuak, egiten ditugun jardueren bidez arlo hauetan modu aktiboan laguntzeko:

- Gizonen eta emakumeen arteko aukeraberdintasuna sustatzea.
- Sexuaren araberako diskriminazio-egoerak desagerraraztea.
- Genero-desberdintasunei edo/eta -estereotipoei buruzko kontzientzia sortzea.
- Genero arrakalak edo desberdintasunak murriztea.
- Genero-aurreiritziak eta -estereotipoak murriztea.
- Emakumeek jasandako diskriminazioa konpentsatzea.

2024an, Bizkaiko Genero Unitatea sortu zen modu formalean, gure erakundearen genero zeharkakotasuna bultzatzeko helburuarekin, hainbat ekintza helburu horretarako dinamizatuz. Genero desberdintasunei eta estereotipoei buruz eragitera eta hausnartzera bideratutako barne sentsibilizazioko 9 ekintza egin dira.

Lan-kontratuko langileentzako sentsibilizazio-ekintza horietan genero-desberdintasunak, -aurreiritziak eta -estereotipoak lantzen dira, 147 emakumek eta 79 gizonek parte hartu duten ekintzen bidez.

Ekintza horien artean nabarmentzekoak dira martxoaren 8a (Emakumeen Nazioarteko Eguna) dela-eta antolatutako hausnarketa-topaketa eta azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela-eta, lan-kontratuko langileen artean zabalduko sentsibilizazio-materialak.

Gainera, Gazteen Gurutze Gorriaren M8 kanpainen 20 urteetako erakusketa iraunkorra instalatu da, eta emakumeen eskubideen konkistaren historiari buruz langileek egindako horma-irudi kolaboratiboa egin da.

Jasangarritasun instituzionala eta finantzarioa

Finantza jasangarritasuna



17.004.311 €

Gastuak



17.127.636 €

Diru sarrerak



123.325 €

Emaitza

GASTUAK / ARLO BAKOITZARI DAGOKION KUDEAKETA	ZENBATEKOA / €	%
Funtsen Bilketa eta Aliantzak	1.177.538	% 6,92
Eragiketen Zentroa	38.671	% 0,23
Nazioarteko Lankidetzak	1.454	% 0,01
Gazteen Gurutze Gorria	289.461	% 1,70
Hezkuntza/Prestakuntza	2.388.026	% 14,04
Enplegua	250.357	% 1,47
Kudeaketa eta Administrazioa	1.828.909	% 10,76
Gizarteratzea	5.912.515	% 34,77
Marka eta Komunikazioa	93.462	% 0,55
Ingurumena	173.429	% 1,02
Osasuna	12.642	% 0,07
Informazio-Sistemak	181.203	% 1,07
Sorospenak eta Larrialdiak	4.467.822	% 26,27
Boluntarioria eta Lurralde Sarearen Garapena	188.822	% 1,11
Guztira orokorra	17.004.311	% 100
KONTU BAKOITZARI DAGOZKION SARRERAK	ZENBATEKOA / €	%
Zerbitzu-ematea	4.637.017	% 25,58
Funtsen bilketa	4.091.400	% 22,51
Dirulaguntzak	7.963.654	% 50,17
Hiri-finkak	219.551	% 1,37
Sarrera finantzarioak	61.807	% 0,17
Ezohiko diru-sarrerak	95.134	% 0,76
Horniduren eta galeren gehiegizkoak eta aplikazioak	59.074	% 0,19
Guztira orokorra	17.127.636	% 100
EMAITZA (ATXIKITAKO BALIO EKONOMIKOA)	123.325	

Atxikitako balio ekonomikoak, banatzen ez denez, **erakundeak ekitaldi ekonomikoan sortutako aurrezkoa** islatzen du, eta agerian uzten du **konpromisoei aurre egiteko eta etorkizunean gure helburuak betetzeko gaitasun handiagoa, eta jarduerari jarraipena emateko aukera ematen du, haren finantzaketa-ahalmena**

handitzen baitu. Soberakinaren zati bat elementu materialetan (egoitzetarako eraikinak eta eraikuntzak, beste elementu batzuk, hala nola ibilgailuak, ambulantiak, erreskaterako ekipok, telelaguntzako terminalak, etab.) eta ukiezinetan (batez ere aplikazio informatikoak) inbertsioak egiteko erabiliko da.

Baliabide materialak

PARKE MUGIKORRA	PARKE MUGIKORRA
Anbulantziak 14	Uretako ontziak / motoak 31
BEA ambulantiak (Bizi-Euskarri Aurreratua) 5	AB Maila 2
OBE ambulantiak (Oinarritzko Bizi-Euskarria) 9	B Maila 7
Kamioiak 2	C Maila 14
Osasun-laguntzako ERIE kamioia 1	C Maila Aurreratua 5
Logistika kamioia 1	Wave Boat - Uretako motoaren kaskoa 3
Furgonetak/garraio egokituko ibilgailuak 6	Uretako erreskate-motoak 12
Garraio Egokituko Ibilgailua 6	OROKORRA GUZTIRA 43
Furgoneta logistikoak/Hornidura 4	
Logistikako ibilgailua 3	
Hornidura furgonetak (Food Truck) 1	
Erreskate-quadak/Buggyak 19	
Atoia 3	
Lur orotakoa 14	
Sorospen eta Larrialdietako Lur Orotakoa 14	
Osasun-postu Aurreratuen Ibilgailua 2	
Ibilgailuak 20	
Hurbileko ibilgailua 20	
Koordinazio-zentro Mugikorreko Ibilgailuak 1	
OROKORRA GUZTIRA 85	



Baliabide materialak

Komunikazioa

Aurten, komunikazioa funtsezko tresna izan da loturak indartzeko, laguntzak mobilizatzeko eta Gurutze Gorriaren balio eta ekintzen inguruan elkarrizketa sortzeko. Lan hauek egin ditugu:


- Konektatzen duten eta inpaktua sortzen duten kontakizunak eraikitzea, ekintzei ez ezik, horiek inspiratzen dituzten balioei eta asmoei ere balioa emanez.
- Markaren presentzia zeharka indartzea, mezu eta kanal guztietan koherentzia eta sendotasuna ziurtatuz.
- Esperientziaren komunikazioa bultzatzea ekitaldien, topaketa instituzionalen eta aurrez aurreko ekintzen bidez, pertsona, erakunde eta entitate aliatuekin lotura zuzeneko espazioak sortzea ahalbidetzeko.
- Ikus-entzunezko edukiak sustatzea, informatzeko, hunkitzeko eta mobilizatzeko funtsezko baliabide gisa, ingurune digitaletan, komunikabideetan eta kanal propioetan haien presentzia zabalduz.
- Larrialdi-egoeretan komunikazioa optimizatzea, funtsezko informazioaren hedapenean azkartasuna, sentsibiltatea eta fidagarritasuna bermatuz.
- Elkarrizketa digitala indartzea, online sare eta plataformetan elkarrizketarako, partaidetzarako eta hurbiltasunerako espazioak sortuz.
- Komunikabideekiko harremana sendotzea, hainbat formatu eta audientziatara egokitutako proposamen segmentatu eta pertsonalizatuen bidez.

Sare sozialak

-  **12.524** Jarraitzaile Facebook-en
www.facebook.com/cruzrojabizkaia
-  **9.298** Jarraitzaile X-n
www.x.com/cruzrojabizkaia
-  **13.807** Jarraitzaile Instagram-en
www.instagram.com/cruzrojabizkaia
-  **16.500** Jarraitzaile YouTube-n
www.youtube.com/@cruzrojaeuskadi
-  **118.383** Jarraitzaile TikTok-en
www.tiktok.com/@cruzrojabizkaia
-  **221** Jarraitzaile Flickr-en
www.flickr.com/photos/cruzrojaeuskadi

Komunikabideak

1.757 Inpaktuak



1.244 Online
257 Prentsa
215 Irratia
41 Telebista



4.4

Enpresak

Enpresa-lankidetzak

466 enpresa bazkide eta 220 enpresa laguntzailerekin itxi zen 2024. urtea.



Urrearen Zozketa

2024ko uztailaren 23an Gurutze Gorriaren Urrearen Zozketa egin zen Tarragonan. Bizkaian, salmenta 754.158 eurokoa izan zen, hau da, 125.693 txartel.



Beste lankidetzak batzuk

Bilboko Gurutze Gorriak Banderatxoaren Jaia ospatzen du urriaren 11n, duela urte batzuetatik. 400 boluntario baino gehiago irteten dira 17 mahaietan, itsulapikoa eskuan, bilbotarren laguntza eskatzera. Aurten, diru-bilketa "One Health: nuestro planeta, nuestra salud. Gure Osasuna, gure planeta" proiekturako izan da. 11.219,65 € bildu ziren.

"Enamórate+Maitemindu" ekimenak gogorarazten digu San Balendin bezalako egun berezi batean gure adinekoek ere haietaz oroitzea gura dutela. Adinekoen Pausoka programako boluntarioek, Bilboko, Galdakaoko eta EHUko ostalaritza eskolen laguntzari esker, bonboiak saltzen dizkiete Bilboko oinezkoei, maite dituzten pertsoneri oparitzeko. Bilketa 1.154,52 € ingurukoa izan da.



Aurten ere, RCMA RSC, Abrako Real Sporting Club Itsas Errege Kluba, Itsasoko Gurutze Gorriarekin lankidetzan ari da Eskuinaldeko Eskualdeko Asanbladan, Oilarraren Estropada tradizionalaren bidez. Bildutako zenbatekoa 1.775 €-koa izan zen, eta 355 pertsonak hartu zuten parte. Eskerrik asko ekimen horrengatik.

